

Iñaki Mendiguren

Maskulinitateaz

Garbi frogatuta dago gizonok (artikulu honetan “gizon” = gizaki ar) ez garela osasungarriak ez geure buruarantz, ez besteentzat –bereziki, emakumeentzat–, ez planetarentzat.

Kontua da lehertzeko zorian gauden –eta sarri lehertzen garen– presioko eltzeak garela. Indarkeria munduan askoz gehiago da gizonok sortua emakumeek baino: azterketa batzuen arabera, lautik hiru. Eta adibidez, emakumearen aurkako bortizkeria geure buruaren kontra daukagunaren beste adierazpen bat baino ez bada, uste duzue Zigor Kodea gogortuta konponduko dela hori?

Ezkor samarra naiz berehalako aldaketek buruz. Familian eta gizartean transmititzen diren genero-rolak oso nekez ari dira aldatzen. Egiten dira kanpainak etxeko lanak partekatzeko, edo ikastetxeetan berdintasunaren balioak lantzeko... baina ezer gutxi da hori beste alde guztietatik datorkigun zaparradaren aurrean. Arazoa konplexua da, eta iruditzen zait gakoa “gizon izaten ikasteko moduan” dagoela beste ezer-tan baino gehiago.

Gizasemeok arazo handi samarrak ditugu geure buruarekin, sakon hausnartu beharrekoak: sexismoa, genitalizazioa eta bereizketarena, besteak beste. Interesatuak hor du James B. Nelson-en *La conexión íntima. Sexualidad del varón, espiritualidad masculina* (Bilbo, 2001). Gizonontzat geure genero-nortasuna eta indibiduazioa lortzeko prozesua zaila eta kontraesanez bete dagoela diote adituek, eta noraezean eta estropezuka egiten dugula bide hori: mutilok sarri ez dugu amaren gonapetik bere garaian eta ondo irteten asmatzen, horrek berekin dakartzan arazoekin (amari gehiegi atxikitako seme ezkondu edo ezkongabeen kontu hau nabaria da Euskal Herriko baserri-giroan); edo emakumearen ebaluazio negatiboaren poderioz ikasten dugu gizon izaten, bestela ere sexismoak gure



DANI BLANCO

oroimen kolektiboan ondo sustraiturik duen ideia! Ez al da, bada, emakumea “gizon akastuna”? Izu-ikara diogu “emee-giak” izateari, baina ezin emakume gabe bizi. Eta amarengandik bereizteko borrokan gabiltzanean, non da gizon izaten ikasteko beste eredua, aita alegia? Sarri, absente; eta eman ezazu aita galduaren bila bizitzaren erdia!

Gizarte patriarkaletan gizonon egoera pribilegiatua da emakumeenaren aldean, baina faktura garestia ordaintzen dugu horregatik. “Akojonatuta” bizi gara behar bezain gizon ez izateko beldurrez: guk funtzionatu egin behar dugu, arrakastatsu izan, beti “zakilixut”, tente potente, ohean eta bizitzako arlo guztietan; gaizki digeritzen ditugu ahultasuna eta porrota...

Gurea gogortasuna, kontrola eta garaipena da; intimitatea, sentimenduak eta lotura emozionalak emakumeen txepelkeriak... Gizontasun hori geure buruari frogatu eta besteei erakutsi beharrak sortzen duen estres eta larriak –lanean, gimnasioan edo tabernan ito ezin dugunean– maiz aurkitzen du ihesbide zakarrik emakumearen aurkako amorruan.

Emakumeek urteak daramatxate beren buruaz hausnarketa egiten, mugimendu feministaren bidez, eta abar. Gizonok, apenas. Baina zer gertatzen zaigun hausnartu eta gizon izateko beste era bat bilatzeko dinamika berririk

sortzen ez bada, konponbide eskasa du honek. Non hasi? Ba, “gizondegietan”: elkarte gastronomikoetan, kirol eta aisialdi-elkarteetan (ehiztarienak eta alardeak antolatzeak barne), erlijio-erakunde edo Elizetan (bide batez, ospatu nahi nuke Eliza Luteranoko kristauak Eva Brunne –gainera, beste emakume batekin ezkondu– izendatu izana Estokolmoko gotzain izateko), eta segi guraso-elkarteetan, sindikatu eta alderdietan, auzo-elkarteetan... Galdetzen hasita, aizue, zergatik ote dabil hain gizaseme gutxi yoga-taldeetan? **n**

«
‘Akojonatuta’ bizi gara behar bezain
gizon ez izateko beldurrez: guk
funtzionatu egin behar dugu,
arrakastatsu izan, beti ‘zakilixut’,
tente potente, ohean eta bizitzako
arlo guztietan; gaizki digeritzen
ditugu ahultasuna eta porrota...
»